



Garazi Lekunberri
Irene Kamiruaga - Nahikari Legina
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Garazi Kamio	3
Sarrera	3
<i>Beste norbaiten zapatak</i>	
• “Argazkia”	4
• “Nessun Dorma”	5
• “Panenka”	7
• “Matematika”	8
• “Long journey home”	10
• “325”	12
• “Beste norbaiten zapatak”	13
• “Gerizpeko panpinak”	18
• Iritzia	21
Bibliografia - Webgrafia	23

Garazi Kamio

Garazi Kamio Anduaga Andoainen, Gipuzkoan, jaio zen 1979ko irailaren 21ean. Euskal idazlea da eta baita ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna eta irakasletzan diplomaduna ere. Hainbat komunikabidetan lan egin du eta egun, Andoaingo Ikastolako irakasle da.

“Beste norbaiten zapatak” liburuaren proiektuarekin 2011.urteko Igartza saria irabazi zuen eta 2012an, Igartza bekaren laguntzaz Beste *norbaiten zapatak* izeneko ipuin-liburua kaleratu zuen. 2013an XIII. Agustin Zubikarai saria eskuratu zuen. 2013an, XIII. Agustin Zubikarai saria eskuratu zuen, "Orube abandonatuak" proiektuari esker eta 2014an, *Orube abandonatuak* liburua argitaratu zuen.



Sarrera

Beste norbaiten zapatak Garazi Kamiok idatzitako lehenengo liburua da, 2012an argitaratu zen Donostiako elkar aretoan. Edizio bakarra plazaratu da oraingoz, baina paperezko liburu bihurtu izanak jende gehiagok irakurri ahal izatea ahalbidetu dio.

Liburua nobela bat da. Lankide baten amaren hilbeilak egonezinik uzten duen gizona, giza harremanak matematika-ekuazioen arabera ikusten dituen bikotea, autobusean bidaiari luze bat egin behar duen lagun pareari, alaba gaixoa ospitalera eramanez behar izan duen ama, bizilagunari mandatu bitxi bat eskatzen dion agurea eta 30 urte lehenagoko ikasle garaiko pasadizoak aztoratzen duen gurasoa dira, besteak beste, liburu honetan kontatzen diren istorioak. Elkarren artean loturarik ez duten zortzi ipuin dira, istorio laburrak elkarren ondoan, laburmetraien saio batean egongo bagina bezala. Askotarikoak dira kontakizunen tankerak, eta baita Garazi Kamioren ipuinetako pertsonaiak ere, sexu, adin, bizibide eta kezkei dagokienez. Askotarikoak dira halaber kontakizunen tankerak. Denek dute gizon-emakumeenganako begirada berezi bat: behatzailea baina ez epaitzailea, pertsonen erdipurdikeriei erreparatzen diena baina miserietan gozatu gabe.

Horrela, XX-XXI. mendeko denboraren menpeko bizimodua islatzen dute istorioek, baina batzuetan denboran salto egin eta aspaldiko zenbait kontu ere eskaintzen dizkigute.

BESTE NORBAITEN ZAPATAK

1. Argazkia

Argazkia

Gaur egunean kokatutako istorioa da, bi pertsonaia nagusi daude, Manuel eta Julen, biek radarrak konpontzen lan egiten dute, lankideak dira. Manuelen ama hil egingo da eta, orduan, Julenek lagundu egingo dio.

Gaia

Gizakiak heriotzaren aurrean hartzen duen jarrera.

Argumentua

Manuelek eta Julenek, biek egiten dute lan radarrak konpontzen. Manuelen ama hiltzen denean Julen bere lankidearen amaren ehorztetxera doa. Hor, hildako amaren gorpua makilatuegia ikusten du eta orduan gainerako hildakoen itxuraz pentsatzen hasten da. Dotore jarri eta hildakoen makilladorearekin hitz egitera doa eta bertan, hilkutxa bat eskatzen du, argazki bat ateratzeko. Ez duelako nahi Manuelen amak bezalako aurpegi artifiziaia izan hiltzen den egunean.

Istorioa (gertaera nagusiak)

- Koka-kola edaten ari da.
- Manuelen ama hil egin da.
- Egun horretako radarrak konpondu eta gero ehorztetxera doa Manuel ikustera.
- Manuelen ama ikusten du, Julenentzako makilatuegia egongo da.
- Manuelen familia agurtzen du.
- Beranduago etxera doa eta hildakoen gorpuek izaten duten itxuraz pentsatzen jarraitzen du.
- Hurrengo egunean radarrak begiratu ostean Manuelen amaren hiletara doa bere lankideekin.

- Lo egin ostean lanera doa eta zereginak amaitu ondoren ehorztetxera abiatzen da.
- Ehorztetxean makilladorea non dagoen galdetuko du eta berarekin hitz egitera doa.
- Julenek berarentzako hilkutxa bat eskatzen du eta makilladoreari azaltzen dio argazki bat atera nahi duela bera barruan sartuta egonik, hiltzerakoan Manuelen amaren itxura ez duelako izan nahi.

Egituraketa

Liburua kapitulutan banatuta dago eta “Argazkiak” kapitulu horietako bat da, non liburuko istorioetako bat azaltzen den eta egituraketa lineala den.

Pertsonaiak

Julen pertsonaia nagusia da, radarrak konpontzen lan egiten du, bakartia da eta hildakoen itxuran pentsatzen du uneoro.

Manuel, bigarren mailako pertsonaia da, Julenen lankidea da eta bere ama hil egin da orain dela gutxi.

Baliabideak

Baliabide asko erabiltzen ditu idazleak istorioan, elkarrizketa asko eta baita deskribapenak ere. Gainera narratzaile orojakilea erabiltzen da, hau da, dena dakiena.

2. Nessun Dorma

Kokapena

Gaur egunean kokatutako istorioa da , bi pertsonaia daude Maria eta Juan. Biak adineko pertsonak dira eta bikotea dira. Juanek alzheimerra dauka eta Maria berari laguntzeko bizi da, janaria prestatzen dio eta, orokorrean, edozein gauzetan laguntzen dio. Hala ere, Maria bere senarraz kokoteraino dago.

Gaia

Adina: zahartzaroan nagusi diren egoerak.

Argumentua

Bi agure beraien etxean daude, lurrean erorita. Juanek alzheimerra du eta bere ohean dagoela uste du. Juanek, jan nahi duela esaten dio Mariari eta gainera txizagura duenean txiza egiten hasten da lurrean. Maria minduta dago, bere senarraz kokoteraino dagoelako eta bere senarrak gezurra esan ziolako Parisera joango zirela hitzeman zionean. Maria ezin da altxatu lurretik eta azkenean bere semea etorri arte lurrean itxaroten geratzen da eta Juan bitartean lokartu egiten da.

Istoria (gertaera nagusiak)

- Mariak Juan altxatzen du eta Juanek altxatzean, ohe gogor batean dagoela esaten dio.
- Mariak lurrean daudela azaltzen dio, jausi egin direla, baina berak ez dio kasurik egiten eta jan nahi duela esaten dio.
- Mariak azkenean gosaria eramango diola esaten dio eta bitartean lo egiteko.
- Orduan, Maria, elkar nola ezagutu zuten pentsatzen hasten da eta haserretzen hasiko da bere senarrak Parisera joango zirela esan ziolako eta oraindik ez duelako bere hitza bete.
- Juanek, altxatzen denean, jateko gogo duela esaten dio Mariari eta gainera txizagura duela. Altxatzeko eskatzen dio bere emazteari eta gainera txiza egiten asten da lurrean dagoen bitartean.
- Maria ezin da altxatu eta errieta egin ondoren, bere senarra lotan geratzen da eta bera bere semearen zain geratuko da lurrean botata, ezin altxaturik.

Egituraketa

Liburua zortzi kapitulutan banatuta dago eta gainera bakoitzean istorio bat kontatzen da. Kapitulu honetako istorioren egituraketa lineala da.

Pertsonaiak

Bi pertsonai bakarrik agertzen dira istorio honetan, Maria eta Juan.

Maria, Juanen emaztea da, bere senarraz kokoteraino dago eta gainera minduta.

Juan, alzheimerra du eta ez daki oso ondo non bizi den, gainera bere emaztea beharrezkoa du gauza guztiak egin ahal izateko.

Baliabideak

Hainbat baliabide erabiltzen ditu idazleak, besteak beste, deskribapenak; eta gainera, elkarrizketaz josia dago. Narratzailea orojakilea da, dena dakiena.

3. Panenka

Kokapena

Gaur egunean kontatutako istorioa da, hiru pertsonai nagusi daude, Irati, bere ama eta bere aitita. Ama kezkatuta dago berak futbola ez duelako gustuko eta bere alaba Betisen jarraitzailea delako. Futbolean jolasten uztea nahi du. Irati zortzi urteko neska da, Betisen jarraitzaile sutsua, bere aitita bezala. Bere aititari futbola asko gustatzen zaio eta bilobak ere gustuko izatea nahi du.

Gaia

Gurasoek duten jarrera aldaketa biloben aurrean.

Argumentua

Irati, alabak, jarroi bat apurtu du aititaren etxean. Orduan, amak txikia zenean Bohemiako jarroia apurtu zuela gogoratuko du. Bere alabak futbola gustukoa du eta berak, ordea, gorroto du. Horregatik, bere aitari errieta egiten dio bere alabari etengabe futbolean aritzeko esaten dionean. Pentsatzen hasten da zer egin ahal duen bere alabak futbola gorrotatzeko, baina Martinek ezer ez gitea eskatzen dio.

Istoria (gertaera nagusiak)

- Jarroia apurtu da.
- Ama gurasoek bere alaba nola tratatzen duten pentsatzen hasten da, berari zenbait gauza egiten ez ziotela usten eta orain Iratiri bai.
- Berak futbola gorroto du baina bere alaba Betiseko hooligan bat da.
- Iratiren bila joaten da bere aitarekin ikastolara eta bertan, aititek bilobari esaten dio hurrengo partidarako bi sarrera dituela baina amak errieta egiten dio, Irati zigortuta dagoelako.
- Amak bere alabak futbola ustea nahi du.

- Azkenean Martinek esaten dio bere alabari futbolean jokatzen uzteko.

Egituraketa

Liburua zortzi kapituluz osatuta dago eta kapitulu bakoitzean istorio ezberdinak agertzen dira. Kapitulu honen egituraketa lineala da.

Pertsonaiak

Ama, futbola gorrotatzen du baina bere alabak, Iratik, futbola oso gustuko du.

Irati, Betisen jarraitzailea da, futbola gustuko du eta gainera bere aititarekin konpartitzen du zaletasun hori.

Aitita, bere alabak futbola gorroto du eta berak, bere bilobarekin batera, gehien maite duen kirola da.

Baliabideak

Baliabide asko agertzen dira istorio honetan, alde batetik barnebakarrizketak erabiltzen ditu eta elkarrizketak ere. Narratzailea orojakilea da, baina bigarren pertsona erabiltzen du, irakurlea ama bilakatuz.

4. Matematika

Kokapena

Istoria Euskal Herrian gertatzen da, Gipuzkoan, hain zuzen ere, Elgoibar agertzen delako, baina pertsonaiak Durangoko Azokan ere egoten dira.

Obraren denbora jarraitua da, ez du flashblack-ik egiten; historia igaro heinean denbora ere igarotzen doa. Gaiaren aldetik, aipagarria da bikoteak duen ekuazio-matematikoen ikuspuntua giza-harremanetarako.

Obra honetako pertsonai nagusienak bikotea dira, Xabier eta Nerea.

Gaia

Giza harremanak matematika-ekuazioen arabera ikusten dituen bikotea.

Argumentua

Goizean, Xabier egunkaria erostera joaten da eta bertan ikusten duen iragarkiak burura ekartzen dio psikologo baten piramidea, non bost maila dauden eta mailaz igotzeko bakoitzak dituen betebeharrak ase behar diren. Etxera heldutakoan, neskalgunari, Nereari, honen berri ematen dio, eta Nerea harrituta geratzen da, duela denbora askotik Xabierrek ez duelako horretaz hitz egiten. Goiz hartan, Durangoko Azokara abiatzen dira, non Paula eta Mirenekin geratu diren, Nerearen betiko lagunak. Neskei Nereak gauza pilo aipatzen dizkie, horietako bat da umeak eduki nahi dituela, eta Xabier hori entzutean, harritu egiten da. Etxerako bidean, kotxean daudenean, musika jartzen dute eta ondorioz, Xabierrek galdetzen dio ea ze musika jarriko ote dioten haien umeei. Orduan, Nereak esaten dio hori gezurra dela, berak ez duela nahi umerik eduki, ez behintzat berarekin. Xabierrek, harrituta, galdetzen dio zergatik dauden elkarrekin, eta Nerearen erantzuna da ondo bizi direlako, ondo aseta dagoelako sexuan eta ez zaiolako ezer falta. Xabier hori entzutean oso txarto jartzen da eta gasolindegi batean gelditzen dira. Mutila kotxean geratzen da eta bitartean neskalguna gauza batzuk erostera ateratzen da. Nerea gasolindegitik ateratzerako da eta kotxea ikusten ez duenez, Xabier, kotxeko martxak jarri eta Nerearengana abiatzen da. Haren gorpuak kristalaren kontra jotzen du eta gelditu gabe Xabierrek alde egiten du, pentsatzen hori dela psikologoak dioen autorrealizazioan egin beharrekoa; autoz egindako ekintza.

Istoria (gertaera nagusiak)

- Xabierrek egunkaria goizean erosten du eta iragarki baten bidez psikologo baten piramide bat gogoratzen du, non mailaz igotzeko autorrealizazioa egin behar den.
- Neskalgunarekin, Nerearekin, Durangoko Azokara joaten da, neskaren lagun batzuekin egoteko. Elkarrizketa batean Nereak aipatzen du umeak eduki nahi dituela.
- Azokatik bueltan, kotxean musika entzuten daudenean, Xabierrek galdetzen dio Nereari ea ze musika jarriko ote dioten haien umeei. Nereak aitortzen dio gezurra dela, ez duela umerik nahi, haien harremana bizirik dagoela ondo daudelako.
- Gasolindegi batean geratzen dira. Nerea kanpoan dagoen bitartean Xabierrek kotxea mugitzen du. Nereak ikusten ez duenez, Xabierrek autoa martxan jarri eta haren kontra jo eta alde egiten du.

Egituraketa

Kapitulu honen egituraketa lineala da, hau da, egituraketa kronologikoa erabiltzen da istorioa kontatzerakoan. Narratzaileak hirugarren pertsonan hitz egiten du, batzuetan elkarrizketak daude pertsonaien artean.

Pertsonaiak

Kapitulu honetako pertsonai nagusienak Xabier eta Nerea dira, baina ez dago hauen deskribapenik, garrantzi handiagoa dutelako haien ekintzek.

Baliabideak

Lehen aipatu bezala, ez da deskribapenik ageri, narratzailea hirugarren pertsonan dago eta barne-elkarrizketak agertzen dira, pertsonai nagusienek. Metafora batzuk ere agertzen dira.

5. Long journey home

Kokapena

Istoriaa Euskal Herrian hasten da, Donostian hain zuzen, baina bidai bat denez, Espainiako leku batzuetatik igarotzen dira helmugara heldu arte; Madril.

Obraren denbora jarraitua da, baina flashblack batzuk egiten ditu pertsonaiek txikitako oroitzapenak gogorarazten dituztenean. Gaiari begira, bi lagunek egin behar duten bidaia “espetxera” heltzeko, lagun bati bisita egiteko.

Gaia

Autobusean bidai luzea egin behar duen lagun pare bat, beste bati bisita egiteko; hau da, adiskidetasuna izango litzateke dagoen gai ezkutua nagusia.

Argumentua

Soniak eta Maiderrek Donostian hartzen dute autobus bat, bidai luze bat egiteko, helmuga Madril delarik. Autobusa ez da betikoa, pixka bat handiagoa da. Jende ugari doa autobusean, eta bitartean, bata musika entzuten dagoen bitartean eta leihatilaren kontra lo hartzen duen bitartean; besteak, txikitari bizi izandako uneak gogorarazten ditu. Horrez gain, bi lagunek elkarrekin ere hitz egiten dute, joango diren espetxearen izenaren historiari buruz. Bidaia oso luzea denez, gelditu egiten dira zerbait jateko, jatetxe batean, eta haien artean komentatzen dute zerbitzariak badakitela nora doazen, soinean daramaten arropengatik. Jana bukatu bezain laster, bideari berrio ekiten diote, eta autobusa beste aspektu bat hartzen hasiko da, guztiak ozen hitz egiten hasiko dira, gauzak jaten eta edaten... Madrilera heltzerakoan, guztiak jaisten dira, Sonia eta Maider

izan ezik, azkenak geratzen direlako. Denbora asko igaro beharko dute herrian etxera heldu baino lehen.

Istorioa (gertaera nagusiak)

- Soniak eta Mainerrek Donostian autobusa hartzen dute bidai luze bat egiteko Madrilera.
- Bidaian, batek lo hartu nahi izango du, baina ezin izango du kolpeak hartzen dituelako kristalaren kontra. Bestea, ordea, txikiko uneak oroitzen ibiliko da.
- Bi lagunek hitz egiten dute joaten ari diren espetxearen izenaren historiari buruz.
- Bidaiaren erdian, jatetxe batean gelditzeko dira zerbait jan ahal izateko. Neskek pentsatzen dute horko zerbitzariak badakitela nora doazen, duten itxuragatik.
- Jan bezain laster autobusera sartzen dira eta gainerakoek lehen baino askoz ozenago hitz egiten dute, jan eta edaten duten bitartean.
- Madrilera heltzean, Sonia eta Maider azkenak izango dira autobusetik jaisten. Denbora luze bat itxaron beharko dute herrian etxera heldu baino lehen.

Egituraketa

Kapitulu honen egituraketa lineala da, hau da, egituraketa kronologikoa erabiltzen da istorioa kontatzerakoan, baina pertsonaiek gauzak gogorarazten dituztenean flashback batzuk agertzen dira. Narratzaileak hirugarren pertsona hitz egiten du, baina elkarrizketak daude pertsonaien artean.

Pertsonaiak

Kapitulu honetako pertsonai nagusienak Sonia eta Maider dira, baina ez da hauen deskribapenik agertzen, garrantzi handiagoa dutelako haien ekintzek.

Baliabideak

Lehen aipatu bezala, ez da deskribapenik ageri, narratzailea hirugarren pertsona dago eta barne-elkarrizketak agertzen dira, pertsonai nagusien artean.

6. 325

Kokapena

Istoriaoa ez da aipatzen non gertatzen den, soilik ospitale batean gertatzen dela, non Anaren alaba dagoen. Beharbada Euskal Herriko ospitale batean izango da, idazleak ia kapitulu guztiak Euskal Herrian kokatu dituelako.

Obraren denbora jarraitua da, ez du flashblack-ik egiten; istorioa igaro heinean denbora ere pasatzen doa. Gaiari buruz, alaba gaixotzearen ondorioz ospitalera eraman behar izan duen amaren ipuina kontatzen digu.

Gaia

Alaba gaixoa ospitalera eraman behar izan duen ama.

Argumentua

Ana, alaba gaixoaren ama, ospitalera abiatzen da. Hor, zeladoreak bere alaba dagoen logelara laguntzen dio. Bitartean hildako asko ikusten ditu pasabideetan, eta beldurtu egiten da, horietako bat bere alaba izango ote den pentsatzen duelako. Igogailua hartzen dute eta hirugarren solairuko 325. logelan sartzen dira. Hor bi ohe ikusten ditu; bat hutsik, eta bestean neska bat bere amarekin. Anaren alaba ekartzen dutenean, Aiora, oso nekatuta dago. Gauerako alboko amak, umearen aitarekin erreleboa egiten du, eta horrek lasaitu egiten du Ana, alboko alabaren amak asko hitz egiten duelako. Hurrengo egunean, Ana medikuaren zain dago, haren alabari buruzko informazioa jasotzeko. Medikua dirudien neska bat sartzen da logelan, baina ospitaleko irakaslea dela esaten du, eta umeak nahi dutenean harekin joan ahal direla, jolasteko edo marrazteko. Aiorak ezin du, baina alboko neskatoa animatzen da. Medikua heltzen denean konturatzen dira Aiorak sukarra duela, eta ez dakite zein den haren kausa. Ondorioz, ziztada lunbarra egin behar diote meningitisa duen ala ez jakiteko. Anak, bitartean, pasabidean itxaron behar du, urduri. Medikuak, ateratzerakoan, esaten dio ez dela meningitisa, beraz, proba gehiago egin behar dizkiotela. Egun horretan ohe-adiskideko neskatoari etxera joateko baimena ematen diote medikuek, eta Ana lasai geratzen da logelan bakarrik, haren alabarekin. Aiora telebista ikusten dagoen bitartean, amak pilula batzuk ateratzen ditu poltsatik, duela urte bete haren aitarenak zirenak, eta Aiorari ematen dizkio amatxo bezala inork ez duela hobeto zainduko esanez.

Istorioa (gertaera nagusiak)

- Goizeko seietan Anak alaba ospitalera hurbiltzen du gaixo dagoelako.
- Hurrengo egunean ama ospitalera doa eta zeladorearen laguntzarekin Aioraren logelara joaten da, pasabideetan gorpuak ikusten dituen bitartean.
- Alabaren logelako-kidea neskato bat da, ama oso berbatia duena. Irakasle bat sartzen da bere burua aurkertzuz, esanez umeek jolastu edo marraztu nahi dutenean harekin joateko aukera dutela.
- Medikua logelan sartzen da eta Aiorari ziztada lunbarra egin behar izango diote meningitisa duen ala ez jakin ahal izateko. Proban negatiboa ematen du, beraz, beste proba batzuk egin beharko dizkiote.
- Gauean, logelako kideari etxera joateko baimena ematen diote eta Aioraren amak poltsatik pilula batzuk atera eta haren alabari ematen dizkio.

Egituraketa

Kapitulu honen egituraketa lineala da, hau da, egituraketa kronologikoa erabiltzen da istorioa kontatzerakoan.

Pertsonaiak

Kapitulu honetako pertsonai nagusienak Ana eta haren alaba, Aiora, dira, baina ez da hauen deskribapenik agertzen, garrantzi handiagoa dutelako gertatzen diren ekintzek.

Baliabideak

Lehen aipatu bezala, ez da deskribapenik ageri, narratzailea hirugarren pertsonan dago eta barne-elkarrizketak agertzen dira, pertsonai nagusien artean.

7. Beste norbaiten zapatak

Kokapena

Istorio hau, gaur egunean dago kokatuta. Kontakizunak zer iraupen duen zehatz ez badakigu ere, pare bat eguneko kontua dela ondoriozta dezakegu.

Istorioa bi tokitan kokatzen da, hasieran Euskal Herriko hiri batean dago kokatua, nahiz eta zeinetan zehazten ez den, izan ere, Urkiola aipatzen du, besteak beste. Hala ere, gertaera nagusia Gasteiz hiriko agure baten etxebizitzan gertatzen da.

Gainera, esan daiteke “guztiz errealak” direla istorio honetako pertsonaiak, hau da, ohiko arazoak dituzten pertsona arruntak direla, egunero kalean gurutzatu ditzakegunak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte.

Bestetik, narrazioa burutzeko, hirugarren pertsona erabiltzen da. Narratzaile bakarra dago, ez dio bere buruari erreferentziarik egiten eta istorioan, beraz, ez dago inplikaturik. Hau da, narratzaileak kanpoko ikuspuntua du eta narratutako gertaeretatik kanpo dago. Narratzailea orojakilea da, hots, gertatzen den guztia daki, pertsonaien sentimenduak eta gertaeren arrazoiak, besteak beste.

Gaia

Iragana alde batera utziz, interesagatik soilik beste norbaiten zapatetan sartzeko dugun abilezia. Pertsonen egiaz dihardu, perfekziotik urruti, errealitatetik hurbil.

Argumentua

Kontzientzia buruan ate joka sentitu duen gizonak sinesgaitza egingo zaion egoera bizi beharko du. Bizilagun baten mandatu bitxi bat dela eta, ezagutzen ez duen agure baten egia ezkutuak azalera eta egoera korapilatuz joango da. Edortari dena egingo zaio arraro, zentzugabekeriaren pareko eta pasatakoa irentsi beharra sentituko du. Behin bizilagunaren nahia beteta, ahaztu besterik ez du egingo eta bere egitekoei berriro heldu.

Istorioa (gertaera nagusiak)

- Edortari langabeziaren tenorea iritsiko zaio eta azken zazpi hilabeteetan osatutako zereginen zerrendan “eskutitza” irakurri eta mandatu bitxi bat eskatu zion agureaz gogoratuko da.
- Mesedea eskatu zion bizilaguna hilda dagoela jakin eta gutun-azalean Fausto Igartua izena besterik ez datorrela ohartuta, langabeziako lehen egun haiek Fausto Igartua bilatzen pasako ditu.
- Interneten Fausto Igartuaren bila hasiko da eta Gasteizko *Alderdi Komunistaren omenaldia* dioen albistean ikusiko du bere izena. Interneten bertan, bere telefonoa bilatu eta deitu egingo dio. Bere zaintzailearekin

berriketan ibili ostean hurrengo egunerako hitzordua egingo du aurrez aurre ezagutzen ez duen Fausto Igartuarekin.

- Gasteizera joango da agureari gutuna ahal bezain azkar emateko eta haren etxebizitzara iritsitakoan, Fausto Igartuaren zaintzailea den Nekane, tripode bat eskuetan, gutuna berak irakurtzeko eskatuko dio. Gerra zibileko testigantzak jasotzen dituen taldeko kidea da Nekane eta hartara, dena grabatu eta hurrengo omenaldian erabili ahal izango duela esaten dio Edortari.
- Edortak gutun-azala hautsiko du eta apurka-apurka irakurtzen hasiko da. Bertan, bere bizilaguna zenak, karlista izatetik komunista sutsu izatera nola aldatu den ez duela ulertzen esaten dio Igartua jaunari. Errekete salatzaile izatetik komunista bihurtzera interesagatik soilik mugitzen dela bat eta ikusi duela beste norbaiten zapatetan sartzeko duen abilezia. Azkenik, lasai egoteko esaten dio, barkatzeko idazten diola.
- Gutunaren azken bi hitzak esateaz batera, Edortak Faustori begiratuko dio eta hurrena Nekaneri. Nekane, zinta deuseztatzea izango dela onena esanez eta urduri, indarrez hartuko dio gutuna eskuetatik Edortari eta apurtzen hasiko da. Nekane ezer ez esateko eta gertatutakoa ahazteko eskatuko dio Edortari eta besotik tiraka etxeko ateraino eraman eta atea itxiko dio ezer esateko aukerarik eman gabe.
- Edortari sinesgaitza egingo zaio dena eta etxe hartan pasatakoa ahaztu besterik ez duela ohartuko da, eta bere gainerako zereginen heldu beharko diola aurrerantzean, ezer gertatu ez balitz bezala.

Egituraketa

Ipuin honek hurrenkera kronologikoari eusten dionez gero, narrazioa lineala da. Hala ere, noizbehinka iraganera jotzen du; beraz, esan dezakegu, ipuinaren haria lineala den arren, iraganera saltoak edo *flashback*-ak aurki ditzakegula tarteka. Gainera, bukaera irekia du, hots, ekintza puntu batera helduz amaitzen da istorioa, baina gertaerek edo pertsonaiaren bizitzek segi dezakete beste batean. Bestalde, aipatu beharra dago liburu osoak bere baitan biltzen dituen zortzi ipuinetako bat dela honakoa eta ipuinaren izenburu bera duela.

Pertsonaiak

Beste norbaiten zapatak ipuinean, pertsonaiak garrantzi handikoak dira istorioaren garapenerako. Hona hemen esanguratsuenak edo aipamen berezia merezi duten pertsonaiak:

Edorta ipuin honetako pertsonaia nagusia dugu. Liburuak ez du zehazten bere adina, baina berrogei urte inguruko gizona dela ondoriozta dezakegu, lanaren

aginduetara egotetik, egitekorik ez izateko amildegira jauzi dena. Lanez lepo zebilenean zerrenda bat egin ohi zuen Edortak. Lan eskerbaren ondoren etorriko zen langabeziarako osatzen zuen zerrenda, egunak zereginik gabe pasa beharrean, denbora azkarrago igaro zedin. Orain langabezian dagoela, zerrendari heldu eta zerrendako bigarren zeregina irakurri bezain pronto duela sei hilabete bere bizilagunak eskatu zion mesedeaz gogoratuko da. Mandatu horrek, ordea, egoera sinesgaitz bat bizi beharra ekarriko dio.

Ernesto Ormazabal, Edortari gutun bat eman eta mesedea eskatu zion bigarren solairuko bizilaguna da. Dagoeneko hilda dago baina duena sei hilabete ustekabean hartu zuen Edorta, ez baitzuen harremanik berarekin. Laurogei urte inguruko gizona zen, bakarrik bizi zena. Diosala egiten zioten elkarri ezkaratzean topo egiten zutenean, baina besterik ez. Kartzelan sartu zuten hamasei urte besterik ez zituela, Fausto Igartuaren salaketa baten ondorioz.

Fausto Igartua laurogei urteak pasata dituen gizonezkoa da, Edortari mesedea eskatu zion bizilagunak emandako gutuna jaso behar duena. Gasteizen bizi da eta Nekane izeneko emakumea arduratzen da bera zaintzeaz. Edortarekin hitzordua egin zuen egunean kaleko arropak zeramatzan soinean, eta bazirudien Nekane orraztu eta txukundu zuela. Ez du ematen barbarik egiten duenik, izan ere, gaixorik dago eta nekatuta egon ohi da. Faustok asko lagundu izan zuen gerra zibileko testigantzak jasotzen, baina jasoko duen gutunean bere iraganeko egia ezkutuak azalera aterako dira.

Nekane Fausto Igartuaren zaintzailea da, emakume txikia da, berrogeita hamar urte ingurukoa. Begi urdin txikiak ditu, eta lepotik zintzilik, den baino zaharragoa egiten duten betaurrekoak. Gerra zibileko testigantzak jasotzen dituen talde bateko kidea da. Gutunaren berri izatean poztu egingo da, hurrengo omenaldi batean erabiliko dutela pentsatuz. Hala ere, gutunak zioena entzun ostean, zabartasunez puskatuko du. Edortari sinesgaitza egingo zaio emakume honen jarrera-aldaketa. Hasiera batean gozoa eta apala irudituko zaio eta gero, aldiz, bi aurpegidun emakumea dela ikusiko du.

Baina hauez gain, bada pertsonaia bat gehiago ere, istorioaren garapenerako inolako garrantzirik gabekoa. Gutunaz gogoratzen denean, Edorta bigarren solairura jaisten da bizilagunari gutuna eman behar dion gizonaren helbide edo telefonoa eskatzeko asmoz. Hala ere, txirrina jo eta hogeita hamar inguruko neskak irekiko dio atea, harritura agurearengatik galdetu dio eta emakumeak agentziakoek hil egin zela esan ziotela jakinaraziko dio eta horregatik jarri zutela salgai etxea.

Baliabideak

Ipuin honetan baliabide ugari erabili ditu idazleak, pertsonaien egonezin eta kezkek irakurleari helaraztea bilatu du. Adierazmolde aldetik, narrazioa da nagusi, baina sentimenduen nahiz pertsonen deskribapenek eta elkarriketek ere garrantzia eta indar handia dute.

Hizkuntza eta idazkera aldetik, konplikaziorik gabeko idazkera du. Euskara gozo eta sana erabiltzen du, batere artifiziorik gabea. Estilo aldetik, gainera, landua dela esan daiteke. Bestalde, estiloan ez da itzulinguru handirik hautematen, zuzena da. Gordin kontatzen du gordin ikusten duena eta solasaldietarako gaien zerrendan barneratzen ez direnak agerraraztea da asmoa, arrunta dena arrunki azaltzea, itzulingururik gabe, zuzen. Ez du hizkuntza mota berezi bat bilatu liburua idazterako orduan. Ulertzeko liburu erraza da, berdin irakurri dezake hamasei, berrogeita bost edo hirurogeita hamar urtetako pertsona batek. Ez da adin bakarrera mugatzen den liburua.

Baina zalantzarik gabe eta baliabideei dagokienez, liburu honetan, aipamen berezia zor zaie tropo edo figurei. Maila semantikoko baliabideak; beste era batera esanda, hitzen esanahiarekin lotura duten baliabideak non nahi aurki ditzakegu, hala nola, konparazioa, metafora, eta pertsonifikazioa. Bestalde, esamolde ugari ere biltzen ditu. Honela bada, honakoak aurki ditzakegu askoren artean:

KONPARAZIOAK

«Hau behera begira zegoen, zigorraren zain dagoen haurra bezala.» (103)

«...baten bat maluta galduen antzera lurrera erori bazitzaion ere.» (104)

METAFORAK

«...egitekorik ez izateko amildegira jauzia» (95)

«Ikusi diat beste norbaiten zapatatetan sartzeko duan abilezia...» (103)

PERTSONIFIKAZIOA

«...kontzientzia buruan ate joka sentitu zuen Edortak.» (97)

ESAMOLDEAK

«Artega zegoen, ez baitzekien ongi agureari zer esan.» (97)

«Salduta sentitu zuen bere burua Edortak.» (100)

«Ez zuen hitzik esan.» (104)

«...etxe hartan pasatakoa irentsi beharra zeukala iruditu zitzaion.» (105)

Horrez gain, aipagarria den beste baliabide bat ere erabiltzen du idazleak. Ernesto Ormazabalek Fausto Igartuari idatzitako gutunean, euskara batua beharrean, hika erabiltzen du. Hona hemen pasarte bat:

«Urte mordoia igaro duk elkarren berri izan gabe. Osasunez ongi ibiltzea espero diat.

Atzo egunkarian ikusi hindudan. Aspaldiko kontuak etorri zitzaizkidan gogora. Garai hartan ere txapela eramaten huen buruan, baina atzokoa borloirik gabekoa zuan.

Gaur, duela hirurogeita hamar urte sartu ninduten kartzelan. Hamasei urte besterik ez nian, akordatzen? Urtebete lehenago hik salatu ninduan, egin nituen marrazki batzuegatik. Orduan ere saritu hinduten, eta omenaldiak ere jaso hituen.» (103)

8. Gerizpeko panpinak

Kokapena

Istorio hau, gaur egunean dago kokatuta. Kontakizunak zer iraupen duen zehatz ez badakigu ere, egun bateko kontua dela ondoriozta dezakegu.

Istoria hainbat tokitan kokatzen da, baina denak Madril hiriburuan. Ipuin honetako ekintza desberdinak Madrilgo hotel garesti batean, Serrano kalean, Preciados, Puerta del Sol, Gran Via, Carabanchel auzoko etxebizitza batean, auzoko Simago supermerkatuan, Carabanchel Altoko hilerrian eta Casa de Campon gertatzen dira.

Besteak beste, adiskideen arteko harremanak, sexu lana edo prostituzioa, iraganeko oroitzapen mingarriak, transexualitatea... dira obra honetan tratatzen diren gaietako batzuk.

Gainera, esan daiteke “gutziz errealak” direla istorio honetako pertsonaiak, hau da, ohiko arazoak dituzten pertsona arruntak direla, egunero kalean gurutzatu ditzakegunak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte.

Bestetik, narrazioa burutzeko, lehenaldiko narratzaile aktorea erabiltzen da. Protagonista bera da ipuin honetako narratzailea. Beraz, liburuko pertsonaia nagusia da ekintzen berri ematen diguna, betiere, lehenaldiko denbora erabiliz, bizi dituen arazoak kontatzen ari balitz bezala.

Gaia

Madrilera bere alabarekin joan den aitari ahaztuta zuen laguna ikusteak eragin dion izua. Pertsonen egiaz dihardu, perfekzioetik urruti, errealitatetik hurbil.

Argumentua

Alabarekin Madrilera asteburu pasa joan den aitak kasualitatez aspaldiko pisu-kidearekin topo egingo du. Urteetan egin duen ipuina ezabatuko dio laguna

ikusteak. Aspaldiko kontuak etorriko zaizkio gogora, gazteak zireneko garaikoak; ezinegona eta mina sorrarazten dioten oroitzapenak dira. Ezustean laguna ikusi eta elkarrekin bizi izan zituzten uneak gogora ekarri ostean, erruak barrua jango dio.

Istorioa (gertaera nagusiak)

- Alabarekin Madrilera joan den aitak aspaldiko laguna zuen Blanca ikusiko du lozakua tolesten, eta banku bateko kutxazainean lo egiten duela konturatuko da. Ez du zuzenean begietara begiratzeko adorerik izango eta bere albotik pasako da txintik ere esan gabe.
- Gaztetako oroitzapenak ekarriko ditu gogora eta Blancarekin Carabanchel auzoko etxebizitza batean bizi zela oroitzuko du.
- Bera gaztetan ikasketak bukatzera joan zen Madrilera eta egun osoa etxean igarotzen zuen, gutxi ateratzen zen kalera, ez baitzuen nahikoa dirurik horretarako.
- Blancak kalera joateko proposamena egin zion behin eta garagardo epela azkarregi edaten ibili ostean, mihia astintzeko gogoa heldu eta Blancak diru truke larrua jotzen zuela aitortu zion. Diru premian egonik berak ere probatu beharko lukeela gaineratu zion, hala, kalera irteteko dirua izango lukeela.
- Hiru egun behar izan zituen Blancaren proposamenari baiezkoa emateko eta hurrengo egunean, biak batera Casa de Campon zegoen errepide estu batera hurbildu ziren.
- Halako batean, mercedes urdin ilun bat gelditu zitzairen eta bi mila euroren truke gizonkote batekin larrutan egin zuen.
- Blancarekin bizitako uneak gogora ekartzearekin batera, uzkurto egingo zaizkio behatzak. Mina sorraraziko diote oroitzapen horiek. Bere burua ispiluan ikusteak nazka emango dio, ezin izan duelako ezer egin Blancaren alde. Berak Blanca ezagutu arren, Blancak ezin izan duelako bera ezagutu, orain gizonezkoa baita.

Egituraketa

Ipuin honek hurrenkera kronologikoari eusten dionez gero, narrazioa lineala da. Hala ere, iraganera jotzen du; beraz, esan dezakegu, ipuinaren haria lineala den arren, iraganera saltoak edo *flashback*-ak aurki ditzakegula. Gainera, bukaera irekia du, hots, ekintza puntu batera helduz amaitzen da istorioa, baina gertaerek edo pertsonaiaren bizitzek segi dezakete beste batean. Bestalde, aipatu beharra dago liburu osoak bere baitan biltzen dituen zortzi ipuinetako bat dela honakoa.

Pertsonaiak

Gerizpeko panpinak ipuinean, pertsonaiak garrantzi handikoak dira istorioaren garapenerako. Hona hemen esanguratsuenak edo aipamen berezia merezi duten pertsonaiak:

Liburuko protagonista alaba gazte bat duen berrogei urte inguruko gizona dugu (liburuan ez da bere izenik aipatzen). Euskalduna da eta asteburu pasa alabarekin Madrilera joango da. Han, oroitzapenetan aspaldi lurperatu zuen gaztetako laguna ikusi eta berari aurpegira begiratzeko adorerik ez du izango. Oroitu nahi ez dituen garaiak etorriko zaizkio gogora eta horrek mina sorraraziko dio. Gaztetan itxura polita zuen eta gorputzez gaizki ez zegoen neska izan arren, bera ez omen zegoen bere gorputzarekin gustura, bera gizon sentitzen omen zen, jakin baitakigu orain gizona dela. Beraz, gizon transexual bat da ipuin honetako protagonista.

Blanca ipuineko protagonistaren aspaldiko lagun eta pisu-kidea da. Gaztetan itzulingururik gabekoa zen, zuzena. Nerabe izateko bidean zenetik esaten zioten gorputz polita zuela eta desfileetako modelo izan nahi zuen handitan. Ez du bere nahia betetzerik izan ordea, orain banku bateko kutxazainean egiten baitu lo. Ilea nahastuta darama, aspaldi garbitu gabea. Arropa zikinak daramatza soinean eta bakarrik ibiltzen da hizketan.

Baina hauez gain, badira pertsonaia gehiago ere, hona hemen gainerakoak:

- Izaro: protagonistaren alaba.
- Mercedes ilunaren jabea
- Casa de Campon errepide estu hartan errenkada luze batean zain zeuden emakumeak. Ondo gazteak zirenak zeuden, hemezortzi bete gabe zituztenak. Baita urteetan gora egiten ari zirenak ere.

Baliabideak

Ipuin honetan baliabide ugari erabili ditu idazleak, pertsonaien egonezin eta kezkek irakurleari helaraztea bilatu du. Adierazmolde aldetik, narrazioa da nagusi, baina sentimenduen nahiz pertsonen deskribapenek eta elkarrizketek ere garrantzia eta indar handia dute. Barne-bakarrizketaz jositako liburua dugu, batez ere sentimenduak irakurleari erraztasun handiagoz igorri ahal izateko.

Hizkuntza eta idazkera aldetik, konplikaziorik gabeko idazkera du. Euskara gozo eta sana erabiltzen du, batere artifiziorik gabea. Estilo aldetik, gainera, landua dela esan daiteke. Bestalde, estiloan ez da itzulinguru handirik hautematen, zuzena da. Gordin kontatzen du gordin ikusten duena eta solasaldietarako gaien zerrendan barneratzen ez direnak agerraraztea da asmoa, arrunta dena arrunki azaltzea, itzulingururik gabe, zuzen. Ez du hizkuntza mota berezi bat bilatu liburua idazterako orduan. Ulertzeko liburu erraza da, berdin irakurri dezake hamasei,

berrogeita bost edo hirurogeita hamar urtetako pertsona batek. Ez da adin bakarrera mugatzen den liburua.

Baina zalantzarik gabe eta baliabideei dagokienez, liburu honetan, aipamen berezia zor zaie tropo edo figurei. Maila semantikoko baliabideak; beste era batera esanda, hitzen esanahiarekin lotura duten baliabideak non nahi aurki ditzakegu, hala nola, konparazioa eta metafora. Bestalde, esamolde ugari ere biltzen ditu. Honela bada, honakoak aurki ditzakegu askoren artean:

KONPARAZIOAK

«*Un, dos, treseko azafata zirudien.*» (113)

«...irribarretsu, bainujantzien iragarkietako nesken antzera.» (115)

«Blancaren inguruan mugitzen ziren oroitzapenak berriz etorri dira nire burura. Objektu bat betirako gorde nahi eta, konturatu gabe, urteak igaro ostean bizilagunaren zakurrak lurpetik ateratzen duenean bezala.» (117)

METAFORAK

«Hezetasun usaineko oroitzapena etorri zait berehala, luzaroan gerizpean egon dena, itxi usainez gainezka.» (110)

«Nire oroitzapenetan aspaldi lurperatu nuen.» (110)

«Beharginentzat egindako erlauntzan partekatzen genuen etxea.» (111)

ESAMOLDEAK

«Eta albotik pasatzean arnasari eutsi diot.» (110)

«...Madrilen ikasketak bukatu nituenetik, ziztu bizian igaro dira.» (111)

«“*Per secula seculorum*”.» (115)

«...nahi eta ezin...» (117)

Iritzia

Beste norbaiten zapatak liburuaren ezaugarri interesgarrienak jaso ondoren, literatur lan on ona dela ondorioztatu daiteke. Izenburuak berak ez du ematen pistarik eleberri honetan aurkituko dugun istorioari buruz. Hala ere, tituluak iradokitzen duen metafora abiapuntutzat hartuta eraiki du bere istorioa Garazi Kamiok. Istorioa zortzi ipuin desberdinen inguruan eraikita dago eta ipuin bakoitza metafora bat da.

Abiadura bizian irakurtzen da liburua, deskribapenetan ez da nahasten, erraz egiten du aurrera irakurleak, erritmo bizian. Gogoetan murgildu aurretik hasten da

hurrengo istorioa, eta begiak horretan iltzatzen ditu berehala. Estiloan ez da itzulunguru handirik hautematen, zuzena da, soila, dramatismo berezirik gabea, efikaza. Gordin kontatzen du gordin ikusten duena eta solasaldietarako gaien zerrendan barneratzen ez direnak agerraraztea da asmoa. Istorioetan barna eramaten gaitu gustura joateko moduan, eta zapore berezi batekin geldituko da betiere irakurlea.

Irakurlea liburua eskuetan hartu bezain laster istorioan murgiltzeko arrazoia, ordea, benetako errealitatea azaltzeko duen abilezia dela esango genuke. Horretarako, eguneroko bizitzako hainbat gertaera lantzen ditu. Izan ere, eleberri honetako pertsonaiak "gutziz errealak" direla esan daiteke, hau da, ohiko arazoak dituzten pertsona arruntak direla, egunero kalean gurutzatu ditzakegunak. Azken finean, gutako edonori bizitzan gerta dakizkigukeen arazoak dituzte eta horrek irakurleari hurbiltasuna igortzen dio, honela, irakurle oro identifika daitekeelarik egoera horiekin. Hortaz, eguneroko gauzak dira Kamiok kontatu dizkigunak, denok bizi ditugunak, egunero ikusten ditugunak.

Nobela hau, oso aberatsa da baliabide estilistikoei erreparatuz gero. Gainera, liburu irakurterraza da, gustura eta jakin-minez irensten den horietakoa. Hizkuntza eta idazkera aldetik, konplikaziorik gabeko idazkera du. Euskara gozo eta sana erabiltzen du, batere artifiziorik gabea. Honek, beraz, badu bere alde ona, berdin irakurri baitezake liburua hamasei, berrogeita bost edo hirurogeita hamar urteko pertsona batek. Ez da adin bakarrera mugatzen den liburua.

Bestalde, liburu honek irakurlea gogoetara bultzatzeko gaitasuna du. Irakurleari, liburua irakurtzen dagoen heinean, nobelan azalduko zenbait egoeraren aurrean nola jokatu lukeen hausnartzeko aukera ematen dio. Izan ere, gizon-emakumeenganako begirada berezi bat du idazleak, pertsonen erdipurdikeriei erreparatzen die baina miserietan gozatu gabe; gure ahaleginak oro zoroak eta alferrikakoak direla ikusi, baina horietan tematzen eta baita ere kontatzen jarraituko dugula dakienarena.

Hala ere, baditu bere akatsak. Baliteke irakurleak liburuaren haria jarraitu ezin izatea hasieran, izan ere, ez du esperoko elkarren artean desberdinak diren zortzi ipuin topatzea. Dena den, liburuaren egituraketa behin ulertuta, benetan erakargarria bihurtzen da.

Laburbilduz eta esandakoa kontuan hartuta, hainbat sentsazio sorrarazten dituen nobela aparta dugu honakoa, irakurtzea benetan merezi duen horietakoa. Eleberri lasaia da, sinplea baina aldi berean gorabehera handiz josia, eta bereziki irakurleentzat gozagarria. Nobela edo eleberriak gustatuz gero hauxe da aukera dezakegun liburu aproposena.

Bibliografia

Beste norbaiten zapatak, Garazi Kamio. Elkar.

Elhuyar Hiztegia, Askoren artean. Elhuyar.

Webgrafia

- http://eu.wikipedia.org/wiki/Garazi_Kamio
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>
- <http://www.diariovasco.com/culturas/libros/201411/12/paraleloan-kontatutako-hiru-istorio-20141112134415.html>
- <http://www.hernaniliburutegia.net/hernani/de/beste-norbaiten-zapatak-garazi-kamio-2982.asp?cod=2982&nombre=2982>
- <http://www.diariovasco.com/v/20120302/cultura/beste-norbaiten-zapatak-ipuin-20120302.html>
- <http://zuzeu.eus/2012/03/01/garazi-kamiok-beste-norbaiten-zapatak-liburua-aurkeztu-du/>
- http://www.elkarargitaletxea.eus/liburuak/default.cfm?atala=prentsa_bulegoa_erakutsi&hizkuntza=1&id_producto=G81.01307&producto_izenburua=%253CPRE%253EBESTE%2520NORBAITEN%2520ZAPATAK%253C/PRE%253E&mota=testua&motatitulu=Elkarrizketa&producto_mota=1&edukia_duten_atalak=,erresein,a,elkarrizketak,biografia,autore_argazkiak,bibliografia
- <http://ikasgela.santurtzieus.com/mod/lesson/view.php?id=17186&pageid=2067&lang=es>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/beste-norbaiten-zapatak/beste-norbaiten-zapatak.pdf>